

Pilota

# Denak Nagoreren sakeari begira

Eugik «eustea» du helburu, eta Nagorek dio aurkaria errestatzaile handia dela

**E**uskadiko Lau t'erdiko Txapelketako finalera-ko pilotak bereizi zituzten atzo Patxi Eugik eta Jorge Nagorek. Irurtzungo pilotariaren sake bikainak eta Agoizkoak emandako positiboaren aferak izan dezakeen eraginak zer esan franko eman zuten.

Luis Karlos Garcia / Gasteiz

EUGI-K 102 eta 102,6 gramoko pilotak hautatu zituen, ez bote handikoak. Nagorek, berriz, 105,1 eta 104,2 gramokoak aukeratu zituen, bote erdikoak eta gogor samarrak. Bi pilotariak Gasteizko Ogeta frontoian azaldu ziren atzo eguerdian, nor bere prestatzaileak lagunduta, eta denek ere oso aintzat hartu zuten irurtzundarraren sakearen garrantzia.

«Nik [Nagoreren] sakeari eutsi egin behar diot, eta, hortik aurrera, dakidan bezala jokatu», esan zuen Eugik materiala aukeratu ondoren. Ongi errestatzea espero duenez, gogoan dauka iazko sanferminetan Nagorek ez ziola sake bat bera ere egin, eta ahaztuta laga nahi du iragan asteburuan Aitor Elkoro sei tanto sartu zizkiola, espezialista izan ez arren.

Nagorek, berriz, ez dio garrantzi handirik eman nahi tantoko lehendabiziko jokaldiari: «Final batean irabazteko denetarik egin behar da ongi, sakean, errestoan, defentsan eta abarrean». Gainera, Eugi «errestatzaile trebea» dela ohartarazi du, eta, oro har, zaila ikusten du bietako norbaitek finala haustea sakeaz baliatuta. Dena den, ezin dezake ezkutatu sakea irabazteko «gako-etako bat» izango dela.

Ezkurak, berriz, erraztasunez laburbildu zuen datorren igandeko finalaren mami nagusietako bat: «Nagorek ez du puntu ahulik, pilotari osoa da, baina inongo zalantzarik ez dut haren gauza onenetako bat sakea dela».



Patxi Eugi eta Jorge Nagore elkarri bostekoa ematen, atzo, Ogeta pilotalekuan.

JOSEBA OLALDE

«Eugik meritu bikoitza dauka» • Azken asteotan pilotaren munduko hautsa harrotu du Patxi Eugik Ruben Belokiren aurkako finalaren ondoko dopin kontrolean emandako positiboak. Agoizko pilotariak atzo ez zion inondik ere heldu nahi izan auziari, ezta txantxetan katarro pixka bat ote zuen galdetu zitzaionean ere. «Galdera gehiagorik bai?», esan zuen behin eta berriz, erantzunik eman gabe. Hauxe izan zen komentario bakarra, buruz zer moduz dabilen galdetuta: «Gogoz beterik nabil, eta txapelaren bila joango naiz buru-belarri».

Nagoreren aburuz, Eugik «meritu bikoitza» dauka, bai dopin kontrolaren gaineko aferagaitatik eta bai hain denbora gutxian Manomanistatik lau t'erdira igarotzen jakiteagatik.

Azken horrek frogatu du, Irurtzungoaren iritziz, Eugi kaialako espezialista handia dela: «Ja prestakizunik egin gabe ere, finalean sartzea lortu du».

«Entrenamendurik gabe pasatu naiz lau t'erdira», dio Eugik, «eta bitxia da, ongi ari bainaiz behar bezala prestatu gabe. Askotan, gogotik entrenatuta ere, ez zaizu ondo ateratzen». Agoizkoak buruan dauka «oso ongi» ibili dela lau t'erdikoan, «zailena finalean sartzea» zela, eta Ogetan orain arteko lana «egoki burutzea» duela helburu.

Bestetik, Nagorek badaki ez zela polito aritu finalaren aurreko urratsean, lortu beharreko tanto kopuruak «presionatuta» zebilelako. Gainera, Eugik dopin kontua dela-eta «okerrena» igaro duela dio. X

## Taldeko bi onenak aurrez aurre gaur

Insaustik eta Juan Pablok banakako pala txapelketako finala jokatuko dute

Asier Iturriagaetxebarria / Bilbo

EUSKO BASQUE-KO pala taldean dauden bi pilotari onenak ikusi ahal izango dira gaur Bilboko Deportivo pilotalekuan (16:30). Juan Pablo eta Oskar Insausti dira, zalantzarik gabe, azken urteetan palan agintzen ari direnak. Insausti da egungo txapel-duna, eta, gaur irabaziz gero, hirugarren txapela eskuratuko du. Juan Pablok, aldiz, ez du titulurik. 1994an Arribillagaren aurka galdu zuen finala, eta 1995ean Insaustiren aurka.

Pilotan egiteko bi era zeharo ezberdinak ikusiko dira gaur Deportivon. Astearteko pilota hautaketan argi gelditu zen hori. Insaustik pilota biziak bilatu zituen, eta Juan Pablok motelagoak, partidua luzatu nahian. «Partidua ahalik eta gehien gogortzen saiatuko naiz», adierazi zuen errioxarrak.

**Sakearen garrantzia** • Itxura batean, final gogorra izango da, eta ez da faborito garbirik ikusten. Hala ere, Juan Pablok badu abantaila sakearekin. Errioxarra, atzelaria

izanik, ohituta dago sakeak ateratzera. Insausti, aldiz, aurrean mugitzen ohitua dago, eta sakean du hutsik handiena. «Sakea funtsezkoa izango da», esan zuen Juan Pablok.

Aipatu legez, tantoa ez dadin luzatu saiatuko da Insausti. Horrela, sake errestoa aurretik egingo duela aurreratu zuen. «Gauza asko okertu ezean, sake errestoa aurretik egingo dut %99tan».

Insaustik ez du ondo entrenatzerik izan, abduktoreetan duen arazoarengatik. Gaur, ordea, bete-betean ariko da. X

### gaurko partiduak

■ **BEOTIBAR. 16:30.**

• Errandonea II.a - Pinedo / Barberito VI.a - Nalda III.a.  
• Berasaluze VIII.a - Beloki / Alustiza - Armendariz.

■ **SESTAO. 17:00.**

• **Espainiako Txapelketa:** Atxa - Apeztegia / Esnal - Mandia. • Etxaniz - Lasa III.a / Titin III.a - Goñi III.a.

■ **GALARRETA. 16:00.**

• Agirresarobe - Aizpurua II.a / Ziganda - Zestau III.a.  
• Ezkurra - Zandio / Altuna II.a - Eizagirre. • Altuna I.a - Zubeldia / Matxin - Agerre.  
• Bitoria - Ekiza / Kalonge - Urretabizkaia II.a.

### biharko partiduak

■ **LODOSA. 18:00.**

• **Euskadiko Txapelketa:** Koka - Barriola / Tirapu - Balerdi. • Unanue - P. Ruiz / Salaberria - Errandonea.

■ **NAJERA. 17:30.**

• **Euskadiko Txapelketa:** Gorostiza - Imaz / Minguez - Rai. • Alustiza - Taberna / Ariznabarreta - Arretxe.

■ **ASTELENA. 17:00.**

• Olaizola II.a - Santi / Berraondo - Galarza III.a.  
• Titin III.a - Berna / Capellan - Elkoro.  
• Tolosa III.a - Almandoz / Berasaluze VII.a - Milikua.

Olaizola II.-Santi /  
Berraondo-Galarza III.

Titin II.-Berna /  
Capellan-Elkoro

Tolosa III.-Almandoz /  
Berasaluze VII.-Milikua

**EGUNA:** Abenduak 25, ostirala.

**LEKUA:** Eibar (Gipuzkoa).

**ORDUA:** 17:00etan.

**ETBk 22:30etan emango du, diferituan.**

